

## Oreka dago batez besteko errenta pertsonalaren lurralde arteko banaketan: apenas dagoen 200 euroko aldea Arabaren eta Bizkaiaren artean

***Euskal AEko gizonezkoek 13.882 euroko guztizko errenta eskuratu zuten. Emakumeenaren bikoitza baino handiagoa da kopuru hori, emakumeena 6.122 eurokoa izan baitzen.***

Lehendabiziko aldiz, EUSTATEk hiru lurraldeetako foru aldundiekin lankidetzan egin du Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika. Estatistika horretako datuen arabera, 1997an, Arabako batez besteko errenta pertsonala 10.037 eurokoa izan zen Araban, 9.981 eurokoa Gipuzkoan, eta 9.975koa Bizkaiaren.

Aipatzekoa da laneko errentek guztizko errentaren osaketan duten garrantzia. Guztizko errenta kalkulatzeko, hauek batzen dira: laneko errentak, jarduerakoak, eta kapitaletikoak (berdin dio kapital higigarria edo higiezina den).

1997an, sortutako guztizko errenten % 86 inguruk laneko etekinak dituzte sorburu: batez beste, 8.473 euro. Gainerako errentak, ia zati berdinetan, jarduerako errentak (% 7,5; batez beste, 737 euro) eta kapitaleko errentak (gainerako % 6,6ak; batez beste, 654 euro).

1. taula. 1997(a). Batez besteko errenta errenta-motari jarraiki, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (euro)


|                    | Euskal AE    |               |              | Araba / Álava |               |              | Bizkaia      |               |              | Gipuzkoa     |               |              |
|--------------------|--------------|---------------|--------------|---------------|---------------|--------------|--------------|---------------|--------------|--------------|---------------|--------------|
|                    | Guzt.        | Giz.          | Emak.        | Guzt.         | Giz.          | Emak.        | Guzt.        | Giz.          | Emak.        | Guzt.        | Giz.          | Emak.        |
| <b>Guztizkoa</b>   | <b>9.888</b> | <b>13.882</b> | <b>6.122</b> | <b>10.037</b> | <b>14.160</b> | <b>6.022</b> | <b>9.795</b> | <b>13.673</b> | <b>6.178</b> | <b>9.981</b> | <b>14.112</b> | <b>6.064</b> |
| Lana               | 8.473        | 12.118        | 5.036        | 8.552         | 12.297        | 4.904        | 8.408        | 11.978        | 5.079        | 8.550        | 12.273        | 5.018        |
| Kapital higiezina  | 524          | 491           | 556          | 497           | 481           | 511          | 575          | 535           | 613          | 451          | 421           | 475          |
| Kapital higigarria | 130          | 116           | 143          | 151           | 132           | 168          | 117          | 102           | 126          | 144          | 132           | 156          |
| Jarduera           | 737          | 1.130         | 366          | 817           | 1.226         | 421          | 667          | 1.028         | 331          | 821          | 1.262         | 403          |

(a) Behin-behineko datuak  
Iturria: EUSTAT

Errenta ez dago berdin banatuta biztanleen artean. Hartara, biztanleen % 16k, hau da, sei biztanletik ia batek, ez zuen errentarik zenbatu 1997. urtean. Eta % 61 izan ziren inolako errentarik jaso ez zutenak edo Autonomia Erkidegoko 9.888 euroko batez bestekotik beherako errenta jaso zutenak. Biztanleen % 10k baino ez zituzten eskuratu urtean 24.000 eurotik gorako sarrerak (ikus 1. grafikoa).

Medianak oso garbi adierazten du errenta biztanleen artean nola banatuta dagoen. Izan ere, biztanleria bi zati berdinetan (medianaz gorakoa eta medianaz beherakoa) bereizten dituen kopurua adierazten du. 1997an, adierazle horrek 6.262 euroko balioa izan zuen. Bestela esanda, biztanleen % 50ek kopuru horretatik gorako guztizko errenta eskuratu zuen; eta beste erdiek, aldiz, hortik beherakoa.

**1. grafikoa. 1997(a). 18 urte eta gehiagoko biztanleria errenta pertsonalaren geruzari jarraiki, sexuaren arabera (%)**



(a) Behin-behineko datuak

**Iturria: EUSTAT**

Sexuen arabera konparatuz gero, aldeak nabarmenak dira. Batez besteko errentaren baliotan, Euskal AEko gizonezkoek 13.882 euroko guztizko errenta eskuratu zuten. Emakumeenaren bikoitza baino handiagoa da kopuru hori, emakumeena 6.122 eurokoa izan baitzen.

Banaketaren aldetik, emakumeek kontzentrazio handiagoa dute, gizonezkoek baino, nor bere batez bestekoen azpiko tarteetan. Hartara, gizonezkoen % 58 dira 13.882 euro horien pareko errenta edo txikiagoa eskuratu zutenak; emakumezkoen kasuan, ostera, % 68 dira euren batez bestekotik (6.122 euro) behera daudenak. Neurri handi batean, alde horren kausa da errentarik jasotzen ez dutenen artean emakumeak (% 19,4) gehiago direla gizonezkoak (% 12) baino.

Guztizko errentaren osaketa berak ezaugarri ezberdinak ditu sexuaren arabera; eta hori hala da, laneko errentetan baino areago, beste bi errenta motetan, hots, jarduerakoetan eta kapitalekoetan. Gizonezkoen kasuan, jarduerako errentak (1.130 euro, batez beste) euren guztizko errentaren % 9,2 dira, eta kapitaleko errentak (607 euro) baino % 1,5 handiagoak dira. Emakumeek eskuratutako kapitaleko errentak, gizonezkoenak baino handiagoak izateaz gainera (batez beste 699 euro, eta euren errenten guztizkoaren % 11,5), jardueratik errenten (366 euro eta % 6) ia bikoitza dira.

Errenta pertsonala zehaztean eragin handia duen beste aldagai bat adina da. Guztizko errenta pertsonalik handiena 45 eta 49 urte bitartean eskuratzen da: 14.521 euro, batez beste. Lanekoak bakarrik diren errentetarako, emakumeen kasuan 10 urte aurreratzen da maximoa, 35 eta 39 urte bitartean izaten baita; gizonezkoen kasuan,

berriz, 45 eta 49 urte bitartean mantentzen da. Jarduerako errenten puntu gorena, aldiz, 40 eta 44 urte bitartean iristen da bi sexuetarako.

Kapitaleko errentak etengabe gorantz doaz 18 urtetatik (82 euroko errenta, batez beste) azken adinetaraino. Maximoa 75 eta 79 urte bitartean dator, 1.413 euroko batez bestekoarekin. Horregatik, kapitaleko errentek guztizko errentan duten partea handituz doa adina handitzen den eran: 18 urterekin, % 3,2 dira kapitaleko errentak, errenten guztizkoan; eta kontuan hartutako azken adin tartean (85 urte eta gehiago), % 20,8.

Ikasketa-mailari begiratu gero, errentarik handienak ondorengo hauek dituzte, ordena honetan: goi-mailako ikasketak dituztenek (15.755 euro), goi-mailako ikasketa ertainak dituztenek (14.785 euro), ikasketa profesionalak dituztenek (11.276 euro) eta ikasketa ertainak dituztenek (9.576 euro). Batez bestekotik behera daude alfabetatugabeak, ikasketagabeak eta lehen-mailako ikasketak dituztenak (4.687, 6.738 eta 8.039 euro, hurrenez hurren).

Landunentzat, batez besteko errenta 17.353 eurokoa izan zen; zatirik handiena (16.162 euro), laneko errentatik etorri zitzaien. Profesional teknikoek, zientzialariek eta intelektualek jaso zuten diru gehien (24.196 euroko errenta); ondoren, enpresazuzendariak eta administrazio-zuzendariak (22.727 euro). Beste muturrean dira kualifikazio gabeko langileak (12.513 euro), eta jatetxe-arloko zerbitzuetako langileak, zerbitzu pertsonaletako langileak eta dendetako saltzaileak (11.956 euro).

Lanbide-egoeraren arabera, enpresaburuek eskuratu zituzten errentarik handienak (21.941 euro), oso hurbil daudelarik soldatukoak eta kooperatibistak (20.917 eta 19.347 euro, hurrenez hurren). Behin-behineko langileak (12.002 euro), autonomoak (10.420 euro, gehienbat jarduerako errentetatik eskuratuak) eta familia-laguntzek (7.820 euro) osatzen dute sailkapena.

Geografia zehazteak errentaren banaketari buruzko beste xehetasun batzuk ematen dizkigu. Udalerrri-eremuan, desoreka handiak ageri dira 250 udalerrien artean. 68 udalerri baino ez dute Autonomia Erkidegokoaz gorako guztizko errenta pertsonala, eta gainerako 182ak 9.888 eurotik behera daude. Gainera, errenta pertsonal handieneko udalerriaren (Laukiz, 17.480 euro) eta txikienekoaren (Lanestosa, 6.222 euro) arteko tartea 11.000 eurotik gorakoa da.

Azkenik, 1997an, batez besteko familia errenta —familia bereko kideen errenta indibidualak batuta lortzen dena— 25.357 eurokoa izan zen, errenta pertsonalaren 2,6 halako. Familien ia % 2k ez zuen errentarik jaso; % 60,6k, berriz, batez bestekotik beherako errenta jaso zuen. Errenta indibidualaren ehuneko bertsua dugu hori.

---

**Argibide gehiagorako:**

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Javier San Vicente

Tel.: 36-945 01 75 34. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)